


Paleta ligaxka,
azken txanpan
sarturik

Sei partida lehen
saioa bukatzeko ▶ 3



ESKUALDEKO EGUNKARIA ▶ Asteazkena ▶ 2007-07-18 ▶ V. urtea ▶ 1.215. zenbakia ▶ www.tolosaldeko-hitza.info

Langile bat larri zauritu da lan istripuan, Anoetako lantegi batean

EZBEHARRA ▶ 09:00etan gertatu zen; 52 urteko galdaragilea, lanean ari zela, lepoan zauritu zen

ARRISKUTIK KANPO ▶ Donostiako ospitalean egin zioten ebakuntza; arriskutik at dago ▶ 2



Anoetan du egoitzetako bat Euskal Forging enpresak. ESTI EZEIZA



A. IMAZ

PEDRO MAUREGI LARRANDA ▶ ARGENTINARRA

«Nondik gatozen jakitea garrantzitsua da»

Lau aitonetatik hiru euskaldun jatorrikoak ditu Mauregik ▶ 6

LEITZA ▶

Gaztetxearen bigarren urteurrena ospatuko dute etzi hasita

Ekitaldi ugari izango dira: afaria, bizikleta martxa, kontzertua... ▶ 7

ANOETA ▶ LAN ISTRIPUA

Langile bat larri zauritu da lan istripu batean

Anoetako Euskal Forging enpresan gertatu zen atzo 09:00etan ezbeharrak; langilea arriskutik kanpo dago



Anoetako Euskal Forging enpresa goikaldetik begiratuta. HITZA

ERREDAKZIOA

Langile bat larri zauritu zen atzo goizaldean lan istripuan. Euskal Forging enpresak Anoetan duen lantegian. Istripua 09:00etan jazo zen, JM.J.B. 52 urteko gizonezko galdaragilea lanean ari zela; ondorioz, larri zauritu zen. Osalanek jakinarazi zuzenez.

Langilea ibartarra zen eta burdinentzako zerra batekin ari zen lanean istripuaren unean. Osalanen datuen arabera, mozketarako diskoa hautsi egin zen langilearen aurrean eta honek airean irten zuen. Inpaktuaren eraginez, langileari

lepoan zauri larriak eragin zituzten.

Hain zuzen, zauri larri hauen ondorioz, zuzenean Donostiako erietxera eraman zuten zauritua. Bertan ebakuntza egin zioten eta azaldu zutenaren arabera, arreta intentsiboko unitatean dago arriskutik kanpo.

Euskal Forging enpresan ordezkaritza gehien duen ELA sindikatuak adierazi duenaren arabera, enpresa horrek azpikontratutako beste enpresa bateko langilea zen istripuaren ondorioz larri zauritua suertatu zen 52 urteko ibartarra. Calcosa enpresakoa, hain zuzen.

Enpresa horretako langileak izaten dira soldatzen aritzen direnak josturarik gabeko erazten laminatuak eta forjatuak eraikitzen dituzten Anoetako Euskal Forging enpresan. Hau bezala, Calcosa enpresa ere Anoetan dago kokaturik.

Aurtengo lan istripuak

Atzo goizean, Anoetan gertatu zen lan istripuarekin, denera, 135 dira urte hasieratik hona Euskal Herri osoan gertatu diren lan istripuak. Horietatik, berriz, 56 dira lan istripuaren ondorioz hildako langileak, eta 79, zaurituak.

GUTUN@K ▶

AHT: urtarrila-uztaila balantzea

2007 urtearen lehenengo zatia pasa denean, Abiadura Handiko Trenaren proiektua zalantzan jarri nahi dugunok, azken hilabete hauetan gertatutakoaren balantzea egitera gatzoz.

Madrileko eta Gasteizko gobernuen akordioaren ondorioz, hasi dira aurtentzako ezbeharrak edo expropiazioak, lanen lizentzioak (tarte bakoitza zein enpresak egingo duen erabakitzearen enkante edo lehiaketa), eta baita obrak ere, modu sinbolikoan behintzat (Arabako Urbinan). Baina era berean, proiektu hau gelditzeko eskatzen duen borrorak ere jarraitu du, bai Tolosaldean, eta bai Euskal Herri osoan. Euskal Herri mailan, AHT Gelditu! koordinakundeak (begiratu ahtgelditu.org web orria), *AHTk Ehan izango lukeen eraginari buruzko txostena* argitaratu zuen martxoan. Txosten horretan aipatzen diren datuen artean agertzen da adibidez, ikerketa ofizialen arabera, AHTk «ukituko» dituen interes hidrologiko bereziko tokien artean Tolosaldea dagoela, Aldaba-Txiki, Montesku, Anoeta eta Zizurkilgo tunelek lur azpiko uretan eragina izan baitezakete. Hilabete berean, *AHTri buruzko iritzirik inkesta* ere aurkeztu zuen erakunde berdinak: Tolosaldeko biztanleen %87k erantzun zuten ez lukeela AHT inoiz (%49) edo ia-inoiz (urtean oso gutxitan) erabiliko (%38). %4ak erantzun zuten hilean gutxitan erabiliko lukeela, eta %9k ez zuten erantzun. Hau da, Tolosaldeko inork ez zuten esan AHT astero edo egunero erabiliko lukeenik.

Bailarako borrorak dago-kionean, neguan gai honi buruzko astebeteko jardunaldiak antolatu ziren Tolosaldeko Kultur Etxean. Apirilaren 1ean, Alegian proiektuari buruzko galdeketa egin zen: 451 biztanlek eman zuten botoa, horietatik 426k ezezkoa eman zuelarik proiektuari, eta 21ek baiezkoa (aurretik Urbinan, Bizkaiko Atxondon eta Itsasondan eginak ziren mota horretako herri galdeketak. Urbinan 115 bizilagunek eman zuten botoa, horietatik 108k ezezkoa eman zutelarik, eta inork ez baiezkoa; Atxondon, 470 herritarrek eman zuten botoa, horietatik 468k ezezkoa, eta inork ez baiezkoa; Itsasondan, 232k eman zuten botoa, horietatik 205ek ezezkoa eta 25ek baiezkoa). Udaberrian, *AHTk Tolosaldean izango lukeen eraginari buruzko txostena* prestatu genduen, beste batzuen artean, honako erakundeek babestu zutelarik (denetara 23 elkarte): Alpino Uzturre Mendi Taldea, Bonberenea, Hauspoa, EHNE, Ibarra eta Tolosaldeko Ezker Abertzalea, Tolosaldeko LAB, Mulambo, Oargi Mendi Taldea, San Esteban Auzoko Kultur Elkarte, Tolosaldeko Ezker Batua-Aralar. Horretaz gain, trenea nondik eta nola pasako litzatekeen ikusteko herriko zenbait taberna eta dendetan poster bat zabaldu zen.

Ez al da arraroa gu ibili beharra proiektuari buruzko informazioa zabaltzen? Beste gai batzuetan badakite ba ederki gure agintariek propaganda nola egin! Gure ustez, hemen arazoa da, AHT pasa bakarrik egiten dela Tolosaldean (gertueneko geltokiak Ezkio-Itsaso eta Astigarraga-Donostia izango lirateke), eta ondorioz oso zaila daukela Udalak proiektu hau saltzea, hainbestetan Tolosa indartu behar dela esan ondoren, proiektu honek juxtu aurkakoa egiten baitu, marjinatu (inpaktu ekologikoarekin batera, ondorio sozialak ere bai baitaizka AHTk, biztanleriaren eta jardueren kontzentrazioa bultzatzen baitu hiri handietan).

Proiektu honen kontrako hurrengo deialdiak honakoak dira: uztailaren 27tik abuztuaren 5era arte Aramaion arikan-pada bat antolatu da, bertan, informazioa, mintegiak, mendi-martxak, kontzertua, eta abar egingo direlarik. Ezinbestekoa da jendearen parte-hartzea eta borroka honi bultzada ematea. Bestalde, uztailaren 21erako Urbinan (Arabako) obretara joateko martxa antolatuta dago, eta, uztailaren 28an, 18:00etan, manifestazioa Urbinatik.

Hemendik aurrera ere, borrorak jarraitu egingo du beraz. Irailetik aurrera AHT Gelditu! koordinakundearen bilerak egingo dira Tolosaldeko Kultur Etxean (hurrengoa, irailaren 3an, 20:00etan), eta jendea animatu nahi dugu bilera horietan edo deitzen diren jardueretan parte-hartzera. Koordinakundearen barnean ikuspegi desberdinak daude. Batzuk «trenbide sozial» bat proposatzen dute AHTren ordez; beste batzuk, jarrera erradikalagoak defendatzen dituzte («erradikal» hitza ez da negatiboa), eta gizarte eredu bera zalantzan jarri behar dela pentsatzen dute. Dena dela, denok ados gaude puntu nagusian: AHT gelditu eta garraino ereduari buruzko eztabaida ireki behar da!

TOLOSALDEKO AHT GELDITU! ▶

BERRIAREN edizio digitalean diseinatzaile/programatzaile bat behar da.

Erreferentzia: 2007 EH-DP.

Ezaugarri hauek izan behar ditu:

- Ezinbestekoa da HTML, PHP eta MySQL programazio hizkuntzekin esperientzia izatea.
- XHTML eta CSSrekin maketatzen esperientzia izan behar du.
- Photoshop eta Flash programak ezagutu behar ditu.

Eskaerak:

- Hiru hilabeteko kontratua (luzagarria).
- Lanean berehala hastea (abuztuaren).

Bidali curriculuma gizabaliabideak@jarduna.net helbide elektronikora, erreferentzia zehazturik, uztailaren 20a baino lehen.

hitza

Praktikak HITZAN irailetik aurrera

Kazetaritza, Euskal Filologia eta Komunikazioa lizentziatutako Tolosaldeko eta Leitzaldeko ikasleei zuzendua

Curriculum-a bidali helbide hauetara:
• Araba etorbidea, 5 behea- atzea
• 20400 TOLOSA
• tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

PALETA ▶

Sei partida falta dira bikoteen arteko ligaxka amaitzeko

Gaur zortzi jokatu dituzte Tolosa CFren 39. Paleta Txapelketako finalurrekoak, eta ostilaralean, finalak



Zabaleta-Urdanpilletak osatutako bikotea, Balerdi-Agirreraren aurka, atzo. E. EZEIZA

ESTI EZEIZA

Joan den astean hasi zen Tolosa CFren 39. Paleta Txapelketako ligaxka, eta dagoeneko partiden erdiak baino gehiago jokatu dituzte.

Txapelketa nahi ez bezala hasi zutela esan daiteke, izan

ere eguraldi txarra zela eta, bigarren eguneko partidak atzeratu egin behar izan zituzten. Hala ere, hurrengo egunetan egonkortzen joan zen eta normaltasunez aurrera egin ahal izan dute paleta saioek. Honenbestez, datorren egunetan ere eguraldiak laguntzen badu,

bihar amaituko dira ligaxkako norgehiagokak. Hauen ondoren, gaur zortzi, finalurrekoak jokatu dituzte, eta bi egun beranduago, hilaren 27an, finala.

Asteko partidekin amaitzeko, sei norgehiagoka geratzen dira jokatzear. Bihar lehenda-

EMAITZAK ▶

ASTELEHENA, HILAK 9

Zabaleta-Urdanpilleta /	
Sarasua-Joseba	30-17
Lontxo-Nazabal/Landa-Galarra	30-16

ASTEARTEA, HILAK 10

Otermin-Goitia /	
Zabala-Domingorena	30-15
Peio-Jon/Xanet-Trinkete	30-28

ASTEZKENA, HILAK 11

Sarasua-Joseba/Balerdi-Agirre	20-30
Lontxo-Nazabal/Xanet-Trinkete	30-12
Zabaleta-Urdanpilleta /Goiburu-Etxarri	30-20

OSTEGUNA, HILAK 12

Artola-Txepe/Zabala-Domingorena	30-14
Taben-Aierdi/Balerdi-Agirre	30-25

OSTIRALA, HILAK 13

Lontxo-Nazabal/Apeztegia-Maiza	30-14
Landa-Galarra/Peio-Jon	21-30
Artola-Txepe/Beobide-Jokin	30-24

biziko saioa 18:30ean izango da. Hemen, Tatxen eta Aierdik osaturiko bikotea, Sarasua eta Josebaren aurka ariko da. Ondoren Apeztegia-Maiza eta Peio-Jonen artekoa ikusi ahal izango da. Eguneko norgehiagokekin amaitzeko, Sarasua eta Joseba, Goiburu eta Etxarriren aurka lehiatuko dira.

Bihar beste hiru partida izango dira jokoan. Hasteko, 18:30ean, Artola eta Txepe, Otermin eta Goitiaren aurka ariko dira. Hauek amaitzean, Zabaleta-Urdanpilleta eta Tatxen-Aierdi bikoteen txada izango da. Ligaxkari amaiera emateko, Goiburu-Etxarri eta Balerdi-Agirreraren artekoa ikusi ahal izango da Berazubiko pilotalekuan.

KIROLAK ▶

Bonbereneako futbol txapelketan azken saioak

Bonbereneak antolatutako futbol txapelketako bigarren jardunaldiak jokatu dituzte larunbat honetan. Helduen nahiz gazteen artean, 14 taldek hartu dute parte eta hemendik lau egunetara erabakiko da zein den irabazlea.

AISIA ▶

Ikaburuko kobetara txangoa Ereite antolatuta

Ereite elkarteak antolatuta irteera egingo dute igande honetan, hau da, hilaren 22an Nafarroara. Txango honetan Ikaburuko kobazuloak bisitatuko dituzte. Hara joateko autobusa 10:30ean aterako da Santa Klaratik, eta 18:30ak aldera itzuliko dira. Izen-ematea 6798 63 83 94ra deituta egin daiteke, etzi baino lehen.



Ikaburuko kobak. HITZA

ERLIJIOA ▶

Arantzazura erromesaldia egingo dute

San Frantzisko komentuko antolatuta, urtero egiten den Tolosa, Berastegi, Elduain eta Berrobiko erromesaldia Arantzazura hilaren 31n izango da. Joan nahi dutentzat, autobuserako eta bazkarirako txartelak, San Frantzisko komentuko porterian eskura daitezke.

iragarki laburrak ▶

LANA

Zaintzailea. Tolosan, ebeko lanak egin eta bi ume zaintzeko emakume euskalduna behar da, goizez. Irailean hasteko. Interesatuek deitu 677 45 25 97ra.

XAKEA ▶

Eskualdeko jokalaria izan dira nagusi Añorgako txapelketan

Gazteetan Beñat Salbarredik irabazi zuen, eta helduetan Sabino Etxeberriak

ERREDAKZIOA

Joan den asteburuan, Karmengo jaiak zirela eta, gazte eta helduentzako xake txapelketa bana jokatu ziren Donostiako Añorga auzoan. Gazteen txapelketa larunbat arratsaldean izan zen eta helduena igande goizean. Batean nahiz bestean eskualdeko jokalaria nagusi izan ziren. Gazteenetan Beras-

tigeko Beñat Salbarredik izan zen txapelduna. Izan ere, honen jokatu zituen partida guztiak irabazi zituen. Oihana Etxeberriak xake txapelketa bana jokatu ziren Donostiako Añorga auzoan.

Helduen txapelketan eskualdekoek podio osoa bete zuten. Sabino Etxeberria izan zen lehen postua eskuratu zuena. Ondoren, Múgelmari Baroja eta Jokin Mendia tolosarrak izan



Eskualdeko xake jokalaria indartsu dabilza. E. EZEIZA

ziren hurrenez hurren, bi eta hirugarren postuak eskuratu zituztenak. Bestalde, aurreko asteburuan, Azpeitiako Sanjuandegi auzoko txapelketan

ere ederki aritu ziren eskualdeko xake jokalaria. Xabier Mujika eta Josu Mujika ibartarrek lehen bi postuak eskuratu zituzten.

VILLABONA ▶ UDALA



Ezker-eskuin: Julito Iturbe, Hautsi Izagirre, Josune Arrebxe, Maixabel Lasa, Remi Aiestaran eta Maialen Abaigar. I. GARCIA

Hamar informazio batzorde izango ditu osatu berri den Udalak

EAEk osatu duen Udal Gobernu berriak lehen erabakien berri eman du; Lasa dedikazio osoz ariko da alkate karguan

IMANOL GARCIA

Villabonako Udal Gobernu batzorde berriaren aurkezpena egin zuten herenegun arratsaldean prentsaurrekoan EAE-ANVko kideek, Maixabel Lasa alkatea buru zutela, eta hartu zituzten lehen erabakien berri eman zuten. Legealdi honetan Udalean hamar informazio batzorde izango direla da horietako bat.

Batzordeburuak ere izendatu dituzte eta gaur arratsaldean egingo dute ez ohiko osoko bilkuran onartuko dituzte. Aurreko legealdian zortzi batzorde zeuden eta oraingoan bi gehiago izango dira.

Bestalde, Udalean izango dira lau alkateordeak ere zein diren erabaki dute. Horrela,

Remi Aiestaran izango da lehen alkateordea, Josune Arrebxe bigarrena, Hautsi Izagirre hirugarrena eta Julito Iturbe laugarrena. Lau alkateordeek eta alkateek osatuko dute Tokiko Gobernu Batzarra. Batzar hori hamostean behin elkartzeko da, asteazkenetan, 20:00etatik aurrera. Osoko bilkurrekin bat egiten badu, honen ondoren izango da.

Izan ere, beste erabaki bat udalbatzaren ohiko bilkurrean maiztasuna izan da. Bi hilean behin egingo da, hileko lehenengo asteazkenetan, 20:00etan. Tokiko Gobernu Batzarra ez bezala, osoko bilkurak herritarrei irekita izango dira.

Villabonako Udalak ordezkariak duen erakunde guztie-

tan zeinek ordezkaturiko duen ere erabakita dute. Horrela, orokorrean, batzordeburuak bere sailarekin zerikusia duten erakundeetan ordezkaturiko dute Udala.

Soldata erdia

Ekonomiarekin zerikusia duten erabakiak ere hartu zituzten. Horrela, Maixabel Lasa alkate karguan dedikazio osoz ariko da. 1.450 euroko soldata izango du, aurreko legealdian liberatuta zegoen Ainhoa Etxabek 2.200 euro jasotzen zituen %75an liberatua baitzegoen—.

Alderdi politikoei eta zinegotzieren asignazioei dagokionez, aurreko legealdian onartuta-

BATZORDEAK ▶

Jarraian zehaztuta, Udalean izango diren batzordeak eta batzordeburuak.

Hirigintza eta Obrak.

Maixabel Lasa.

Zerbitzuak eta Mantenua.

Julito Iturbe.

Mendiak eta Ingurumena.

Josune Arrebxe.

Ongizatea eta Emakumea.

Josune Arrebxe.

Gazteria, Etxebizitza eta Lana.

Remi Aiestaran.

Ogasuna.

Hautsi Izagirre.

Kultura eta Kirolak.

Hautsi Izagirre.

Euskara eta Hezkuntza.

Maialen Abaigar.

Jarraipena.

Maialen Abaigar.

Pertsonala.

Remi Aiestaran.

koen berdina izango dira, KPiren igoerarik gabe. Horrela, talde politiko bakoitzak 120 euroko diru kopuru finkoa jasoko du hileroko. Informazio batzorde buru den zinegotzi bakoitzeko 380 euro ordaindu zaizkio talde politikoari hileroko. 60 euro gehituko dizkiote Tokiko Gobernu Batzordeko kide den zinegotzi bakoitzeko. Bestalde, 200 euro ordainduko dizkiote talde politikoak osatzen duen zinegotzi bakoitzeko.

ALEGIA ▶

Bost gazte atxilotu dituzte lapurreta leporatuta

Atxilotuetatik hiru adingabeak dira; lapurreta «larderiaz» egitea egotzen diete

ERREDAKZIOA

Tolosako Ertzaintxeko agenteek bost gazte, horietako hiru adingabeak, atxilotu zituzten astelehenean asteartera bitarteko gauean Alegian, larderiaz egindako lapurreta delitua leporatuta. Herrizaingo Sailak ohar batean adierazten duenez. Ekintzen egileek pertsona bat eraso zuten eta, labana bat lepoan jarri ondoren, dirua, erlojua eta telefono mugikorra lapurtu dizkiote. Ertzaintzak azaldu duenez.

Gertakariak goizaldeko ordu biak aldera jazo ziren, San Juan kalean. Ordu horretan, lagun bat kale horretatik zihoan norbaitek eraso egin zionean, lepoan labana jarri eta zeukan guztia emateko aginduz. Biktimaren salaketaren arabera, erasotzaileak poltsikoak miatu zizkion eta berrogeita hamar euro, telefono mugikorra eta erlojua lapurtu zizkion. Jarraian, larderiazko lapurretaren egileak ihes egin zuten autoan, hainbat gazterekin batera.

Gertakizunaren berri izandakoan, Ertzaintzako agenteek bilaketa dispositiboa jarri zuten martxan. Ondorioz, beren ezaugarriek datuekin bat egiten zuten bost gazte aurkitu zituzten. Identifikazioaren bitartean, aipatutako telefonoa eta erlojua kendu zizkieten, beti ere Ertzaintzak esandakoaren arabera. Evidentzia horiek direla eta, bost gazteak, haitetako hiru adingabeak, atxilotuta eraman zituzten.

BIDAIA ALTERNATIBOAK		
Bidaiatzeko beste modu bat		
Hegaldiarekin	...tik aurrera	Hegaldirik gabe
VENEZUELA 20 egun 2030€		Naminia-Bostwana-Zimbabue 14 egun 700€
Peru 17 egun 1805€		Hegoafrika - Lesotho 20 egun 1000€
Bulgaria oinez 15 egun..... 1210		Bolivia 16 egun 997€
Vietnam 20 egun 2190€		Estatu Batuak 16 egun 1218€
India 16 egun 1200€		Canada 15 egun..... 1189€
Yemen 18 egun 1580€		Nepal 13 egun..... 558€
Uzbekistan 17 egun 1790€		Myanmar 14 egun..... 760€
Egitarau gehiago aukeran KONTSULTATU ***** Web orriko bapkidetaren tokoan izena eman eta bidaiaren zozketan sartuko zara.		
Egitarau gehiago aukeran KONTSULTATU		
Segundo Izpizua 28 info@kultourbidaiak.com Donostia. 943 29 70 25 www.kultourbidaiak.com		

VILLABONA ▶ KIROLAK

Areto futboleko finalerdiak

Erredakzioa ▶ Villabonako koadrilen arteko areto futboleko finalerdiak jokatu dituzte gaur eta etzi. Wuitsu I eta Wuitsu II arteko eta Antitodo eta Emaioi arteko izango dira norgehiagokak. I. GARCIA



AMEZKETA ▶ PILOTA

XIX. Joxean Tolosa Txapelketan 76 jokalarari ariko dira

Ostiralero eta larunbatero izango dira frontoian kadeteen, gazteen eta nagusien mailako banakako partidak



Iazko Joxean Tolosa Txapelketan finalerdietako bat jokatu aurretik. NEREA LIZARTZA

NEREA URBIZU

XIX. Joxean Tolosa Txapelketa abian da jada, Amezketa pilotalekuan. Joxean Tolosak buruz buruko pilota txapelketa Retegiri 1989an irabazi zioneko gogoan du Amezketa pilota eskolak —txapelketako antolatzaileak— lehiaketa honen.

Beti bezala, banakakoa izango da, eta kadete, gazte eta nagusien mailakoak izango dira denak. Guztira 76 pilotari ariko

dira Amezketa: 26 kadete, 26 jubenil eta 30 senior. Antolatzaileek gogoratu zuten «nagusien mailan parte hartu nahi izan dutenak 52 izan dira; asko da, baina ezin dira denak hartu. Udan zehar dauzkaten konpromisoen arabera aukeratu behar izan ditugu».

Aurten Zazpi-Isturriko pilotari gutxi ariko dira: maila bakoitzeko bi, alegia. Olaetxea eta Arzelus kadeteak, Ropon eta Leunda gazteen artean, eta Zelaila eta Garmendia nagusien

mailan. «Garmendia aspaldi ez da txapelketa honetan aritu, baina aurten berriz ere ikusi ahal izango dugu». Antolatzaileek hau arrazoitza orduan, urtean zehar jokatzeko dituzten torneo nahiz txapelketa guztiak dituzte gogoan, eta «denetan ondo ibili nahi izaten da, baina urte osoan zehar jokatzeko dituztenak gehiegi dira. Horregatik ez dugu denek jokatzeko nahi: jokalarientzat gehiegi dira».

Euskal Herri osokoak ariko

EMAITZAK ▶

Jardunaldiak. Lehenengoa, hilaren 13an eta 14an.

KADETEAK

Mayo10 -18 Arrieta
Alustiza 18 -12 Zubizarreta
Zendoia 18 - 4 Erdozia
Bilbao 18 - 5 Etxaniz
Etxeberria 8 - 18 Madariaga

NAGUSIAK

Urrutia 3 - 18 Errerte

GAZTEAK

Saez 18 - 8 Artola
Zelaieta 7 - 18 Esnaola
Yeregi 18 - 8 Kortaberria

dira nor baino nor. Aurten Iparraldeko bi izango dira, baina gehienak nafarrak dira.

Datorren asteburukoak

Irailaren 16an izango da finala, «ondoren probintziala hasiko delako, eta federazioak ez du luzatzen uzten». Partida guztiak ostiraletan eta larunbatean jokatuko dira. Etzi, esaterako, 21:00etan nagusien 3 partida daude: Agirre Galarragaren aurka; Soto, Esnaolaren aurka eta Gorrotxategi, Zelaiaren kontra (Lizartzakoa).

Larunbatean 10:00etan jubenilen artekoak izango dira. Mendia eta Sagaseta ariko dira aurrez aurre. Ondoren, Urruzola (Alkizakoa) eta Etxeberria, eta azkenik Iriarte eta Oiartzabal.

16:00etan kadeteen txanda izango da berriz. Bereziartu eta Eguiguren partida da lehena; bigarrena, Aiestaranen eta Jauregiren (Anoetakoa) artekoa da, eta hirugarrenean Artutx eta Sukia ariko dira. Gauean, 21:00etatik aurrera seniorrak ariko dira: Etxegarai eta Errarte, Elizalde eta Uzkudun, eta Kantxo eta Landiribar.

Beraz, eskualdekoren bat ariko da, bai etzi, eta baita larunbata goizean eta arratsaldean ere.

IKAZTEGIETA ▶

Zabor bilketaren tasa ordaintzeko epea zabalik

2007. urteko lehen sei hilabetezko zabor bilketa tasari dagokion errolda onartu da, eta honi dagozkion ordainagiriak borondatezko epean ordaintzeko jarriak izan dira. Ordaintzeko epea abuztuaren 8an bukatzen da. Ordainketa, berriz, banketxeetan nahiz udaletxean egin ahal izango da. Helbideratuta dauden ordainagiriak, berriz, abuztuaren 8an kobratuko dituzte.

ALTZO ▶

Festetako zikirojate afarirako txartelak salgai

San Inazio jaien baitan, hilaren 30ean —astelehena— 20:30ean, iaz bezala afari berezia egingo dute, hau da, zikirojate antolatua du Altzoko jai batzordeak. Bertara joan nahi dutenek Altzoko Arandia jatetxean dauden txartelak erosi behar dituzte. Salneurria 20 eurokoa da. 200 pertsonentzako izaten da afari hau, eta komenigarria da txartelak lehenbailehen erostea.

IBARRA ▶

Gaur, herri antzerkirako entsegua

Gaur Ibarako San Bartolome jaietan azken urteetan egiten den moduan, herrian zehar ibiltzen den herri antzerkirako entsegua egingo dute 19:30ean. Alurr dantza taldearen lokal zaharrean elkartuko dira, hau da; plaza ondoan. Honez gain, hurrengo asteazkenean, hilak 25, beste entsegu bat egingo dute gaurko leku eta ordu berean.

hilberria ▶

Lucia Etxabe Zubizarreta

(Luis Arnadilloren alarguna)

ATZO hil zen, 83 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

—Goian bego—



Bere seme-alabak: M. Angeles (†), Jose Antonio eta M. Angeles Nieto, Patxi eta Luisi Samper, M. Angeles, Jose Luis(†); bilobak: Aimar; Naiara, Alba, Gorka, Laida, Sara eta Laura; anai-arrebak, ezkon anai-arrebak, ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideek. Haren animaren alde otoi bat eskatzen dizuzte eta arren etor zaitezte LA GAUR ASTE-AZKENA, arratsaldeko ZAZPIETAN, ZARAUZKO SANTA MARIA LA REAL parroki elizan, GORPUIA BERTAN dela egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Helbidea ▶ Araba kalea 50, 2. D

ZARAUZT, 2007eko uztailaren 18a

Oharra ▶ gorpua Zurmaiako bellategian dago

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

HILBERRIAK URTEURRENAK ESKERTZAK

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZAK GIPUZKOAN 120.000 IRAKURLE

ESKELAK 19:00ak arte hartzen dira tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info Tel.: 943 65 56 95

Lucia Etxabe Zubizarreta (Luis Arnadilloren alarguna)

ATZO hil zen, 83 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

—Goian bego—

Bere seme-alabak: M. Angeles (†), Jose Antonio eta M. Angeles Nieto, Patxi eta Luisi Samper, M. Angeles, Jose Luis(†); bilobak: Aimar; Naiara, Alba, Gorka, Laida, Sara eta Laura; anai-arrebak, ezkon anai-arrebak, ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideek. Haren animaren alde otoi bat eskatzen dizuzte eta arren etor zaitezte LA GAUR ASTE-AZKENA, arratsaldeko ZAZPIETAN, ZARAUZKO SANTA MARIA LA REAL parroki elizan, GORPUIA BERTAN dela egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Helbidea ▶ Araba kalea 50, 2. D

ZARAUZT, 2007eko uztailaren 18a

Oharra ▶ gorpua Zurmaiako bellategian dago

PEDRO MAUREGI LARRANDA ▶ EUSKAL JATORRIKO ARGENTINARRA

«Garrantzitsua iruditzen zait nondik gatozen jakitea»

Lau aitonetatik hiru euskaldun jatorrikoak ditu Pedro Mauregik, hala eta guztiz ere, 100 urtean Argentinatik etxerako buelta egin duen lehena da

ASIER IMAZ

Pedro Mauregi Larranda (Argentina, 1978) La Platako unibertsitatean Zuzenbidea ikasten ari da, baina aukera txikiena aprobetxatu du sustraian atzetik Euskal Herrira etortzeko Buenos Aires probintziatik. Leaburu-Txarama, Berrobi, Tolosa eta Iparraldeketik jaso du arbasoen deia darra.

Zure sustraian bila etorri zara Euskal Herrira?

Beti izan nuen buruan Euskal Herrira etortzeko ideia, nahiz eta ez jakin noiz izango nuen horretarako aukera. Baina sustraian bila etortzeko asmoa hor zegoen.

Zure bi abizenak euskaldun jatorrikoak dira.

Lau aitonetatik hiru euskaldunak ditut. Aitaren aldetik Mauregi abizena dator, amaren aldetik berriz, Larranda eta Goikoetxea. Mauregitarrak 1830-1850 inguruan joan ziren Argentinara. Hauen inguruan ez daukat informazio gehiegi; badakit nortzuk etorri ziren baina ez Euskal Herriko zein lekutatik. Hala eta guztiz ere, Bermeon (Bizkaia) Mauregi bat aurkitu dut orain gutxi, eta denbora badut saiaturko naiz berarekin harremanetan jartzeko. Larranda beraitona, 1905ean iritsi zen Argentinara, Donibane Garazikoa zen bera. Iparraldera joaten naizenean asteburu honetan, saiaturko naiz azarna gehiago aurkitzen. Iparraldeko familiarekin 1950. urtean galdu zen komunikazioa. Goikoe-

txearen aldetik, Lorenzo duela 100 urte joan zen Leaburu-Txaramatik haruntza, 1907. urtean hain zuzen ere. Komunikazioa 1970. urtean galdu zen baina orain dela lau urte berriz harremanetan jarri ginen, Mikel, Begonia, amona eta aitona Lorenzo Dorronsororekin, bera nire amona Lorenza Goikoetxearen lehengusua da.

Euskal jatorria zabala al da Argentinan?

Euskal jatorria asko mantentzen da, presentzia handia dauka nik ezagutzen dudak Buenos Aires probintzian, eta hori batez ere nekazal guneetan ikusten da.

Eta euskal ohiturak edo ezaguerriak ere islada izango dute Argentinako gizarteak?

Txapelaren erabilera adibidez sozializatu edo zabaldua dago, erabiltzaileak jatorri euskalduna izan edo ez. Hau ere batez ere nekazal munduko jendearen ikusten da. Gero zure izena esan ordez, *el vasco* bezala ezagutzen zaituzte, ondoren zure abizena elkartzeko diote. Beste alde batetik, euskaldunaren hitzaren balio oso kontuan hartzen da, eta zabaldua dago hau ere. Euskaldunak konpromezu bat hartuz gero, hitza bete egiten duela badaki herriak. Ez da ezer gehiago behar, sinadura edo antzeko gauzik. Nik banuen historiako irakasle bat, euskaldunen inguruan ikerlan asko egin. Berak zionez, euskaldunak nasieran distantzia hartu edo markatzen du, nola mugitzen zaren, nondik zabilzan ikusten duen arte. Bizkarrean kolpe bat ematen dizunean,



A. IMAZ

LEABURU-TXARAMA

«Goikoetxeatar sendiko Lorenzo duela 100 urte joan zen Leaburu-Txaramatik Argentinara, 1907an, hain zuzen ere»

zure baloreak zeintzuk diren ikusten duenean eta bere balore berdinekin mugitzen bazara, muga guztiak hautsiak gertatzen dira, harresiak erortzen

EUSKAL ETXEA

«Euskal Etxe batzuk folklorean geratzen dira euskal gatazkaren arrazoiak zabaldu beharrean»

dira. Hortik aurrera, ez duena ere emango dizu. Honekin esan nahi dut bere baloreekin konsekuentea eta koherentea dela, xiltasunaren laguna, hiz-

ketaldiena baino gehiago. Euskaldunaren ezaugarri bezala ikusia dago hori, eta egiten duen gauza guztietan horrela dela uste dut.

Gazte Munduri esker etorri zarete Euskal Herrira?


Eusko Jaurlaritzak bultzata, Gazte Mundu bidez etorri gara. Ekainak 31n etorri ginen. Bigarren astean berriz, Mundu mailako euskal kongresuan egon gara, herrialde ezberdinetako euskal etxeetako ordezkariekin batera. 4 urtetik behin egiten da eta bertan, urteetan zehar egiten dugun lanaz mintzatu gara, aruten memoria historikoaren inguruan ere hitzegia dugu, arbasoen informazioa gordetzeko beharrezkoak etab.

Euskal Herria ezagutzeko jakinmina nondik sortu zaizu?

Hasiera batean barnean nuen interesa, gero gurasoengandik ere jasotzen zaizu. Nire amari bere aitona, erreka ondoan zuen baserri baten inguruan hitzegiten zion. Irudi hori hor geratzen zaizu. Nik historia eta arbasoen inguruan errespetu handia daukat. Gaur baldin bagaude, aurretik norbait egon delako da. Eta gaur zerbaite badugu, aurretik norbaitek egin duelako da. Iragina eta gure historiarekiko errespetu horretan, garrantzitsua iruditzen zait sustraia bilatzea, nondik gatozen jakitea, nora goazen jakitea eta zer nahi nahi dugun jakitea.

Euskal Etxe ugari daude munduan zehar, ez al zaizu iruditzen funtzio kultural-folklorikoa soilik betetzen dutela?


Euskal Etxe batzuk bide okeretik dabilzala uste dut. Ezjakintasunagatik, interes faltagatik edo Euskal Etxeak folklorea hutsean uzteko interesak dituztelako Euskal Herriaren errealitatea zabaldu beharrean. ETA egotearen motibazioak, bere historiaren etapak eta batez ere, ETAgandik urrunago joan eta euskal gatazkaren arrazoiak zabaldu beharrean, kultura mailan bakarrik gertatzen dira Euskal Etxe batzuk.



Higiezin Agentzia

Pablo Gorosabel 40
1. solairua • 7. bulegoa
20400 TOLOSA
Tel./faxa: 943 65 55 87
Sakelakoa: 669 368 994

<p>Anoeta. Berriki eraiki eta kanpoaldera begira dagoen etxebizitza salgai. <u>Garajearekin eta altzariz hornituta.</u></p> <p>Anoeta. Harrizko baserrian 90m2ko etxebizitza salgai. <u>Berritzeko.</u></p> <p>Betelu. Hiru logelako etxebizitza. Egongela, sukalde, bi bainugela, terraza eta altzariz hornitua. Egoera ezinhobe.</p> <p>Donostia. Mandasko duke kalean etxebizitza salgai dago atikoarekin. Erabat eraberritua.</p>	<p>Ibarra. Bi logelako etxebizitza. Eraberritua. Plazaren inguruan.</p> <p>Irura. Etxebizitza atikoan. Hiru logelakoa. Kanpoaldera, oso eguzkitsua, egoera ezinhobe.</p> <p>Tolosa. San Esteban auzunean, bi gelako etxebizitza, igogailuarekin eta <u>guztiz berritua.</u></p> <p>Tolosa. Etxea eraikin abixian, bi etxebizitzetan banatua, garajearekin eta txokoarekin.</p> <p>Tolosa. Belate inguruan, azken lau garaje ibiak. Eraiki berriak.</p>	<p>Tolosa. Pedro de Tolosa. 122 m2ko etxebizitza, garajea eta <u>trastelekua.</u></p> <p>Tolosa. Agintari kalea. Bi logelako etxebizitza. 70 m2.</p> <p>Tolosa. Gemikako Arbolan, merkataritzarako lokala bi solairurekin, <u>bakoitzak 35 m2.</u></p> <p>Tolosa. Zumalakarregi kalean. 1. solairuan eta 4. an, kanpora ematen duten bista honekin.</p> <p>Tolosa. Martxan dagoen ostalaritzako negozioa salgai. Zentroan.</p>
---	---	---



LEITZA ▶ GIZARTEA

Gaztetxearen bigarren urteurrena ospatuko dute etzi

Ostiralean hasi eta larunbaterako ere ekitaldi ugari antolatu dituzte Atekabeltz Gaztetxearen urteurrena ospatzeko



Garazi Zabaleta eta Irati Iparragirre, Atekabeltz Gaztetxearen sarreran. N. GARZIA

ATEKABELTZ GAZTETXEAREN II. URTEURRENA ▶ EGITARAUA

OSTIRALA

16:00etan. Auzolana (jendearen partehartzea estimatzen da).

22:00etan. Afari autogestionatua (afalostea kantuz alaituko da).

LARUNBATA

11:00etan. Bizikleta martxa

gaztetxetik abiatuta (bueltaxka bat eginen dute herriko inguruan).

14:00etan. Bazkaria gaztetxean.

▶ Menua: Pasta entsalada, unxi erreja jogurt krema, kafea eta kopa.

▶ Bazkal ondoren clown saio bat izanen da.

18:00etan. Grafitilariak eta hip-hop kontzertua, Kataluniako SDF taldearen eskutik.

20:30etan. Triki poteoa herrian zehar.

23:00etan. Kontzertua gaztetxean THC taldearekin.

▶ Festa igande goizaldera arte luzatuko da.

IRATI IPARRAGIRRE ▶ IKASLEA

«Gaztetxeak oraindik jende pixka bat gehiago hurbiltzea behar du»

Irati Iparragirre (Leitza, 1988) Leitzako Gaztetxeko kideetako bat da.

Bi urte hauek nolakoak izan du dira zure ustez?

Hobetzen goaz. Aurreneko urtea gehienbat etxea prestatzen pasa genuen. Orain etxea jada ongi dago.

Aurrera begira zeintzu dira zuen helburuak?

Hobetzeko asko dago. Nire ustez Gaztetxeak oraindik jende pixka bat gehiago hurbiltzea behar du, jendeari ohitura hori

sartzea egunero Gaztetxera tarte bat pasatzera joatekoa. **Atekabeltzen etorkizuna, herri proiektu baten barruan, nola ikusten duzu?**

Gu printzipioz Atekabeltzen gizarte zentrua edo Kultur Etxea egitearen aldekoak gara, betiere gure txokoa errespetatzen duten heinean. Guk hasieratik esan genuen etxea handiegia geratzen zitzagula eta herri guztia erantzutza izan behar duen erabilpena eman behar zaiola. ◀

GARAZI ZABALETA ▶ IKASLEA

«Egunerokotasunean jendearen parte-hartzea falta da»

Garazi Zabaleta (Leitza, 1989) Gaztetxearen hastapenen inguruan mintzatu da.

Hasiara nola gogoratzen duzu?

Ilusio handiarekin hasi ginen. Zailtasunak ere egon dira, baina gustura gaude. Inaugurazioa egin zenean herri guztia joan zela ikusita asko poztu ginen.

Nola egiten duzue lan?

Astero bilerak egiten ditugu eta erabaki guztiak hor hartzen ditugu.

NAIARA GARZIA

«Udaletxeari behin baino gehiagotan esan izan zitaion, Atekabeltz itxita zegoela ikusita, erabilpen bat emateko. Guardia Zibila joan zela denbora bat bazen eta egun batean garbitzera sartu ginen. Etxea zikina zegoen eta erratza pasatzen hasi ginen. Printzipioz hura ikustera sartu ginen eta hain gaizki ez zegoela konturatu ginen». Atekabeltz Gaztetxearen hastapenak honela kontatu dituzte hasiera horietan parte hartu zuten zenbait kidek. Eraikina sartu eta honen egoera ikusi ondoren, moldaketa lanak iritsi ziren. «Hormak bota genituen, lurra berriro genuen. Aparejadore batekin hitz egin genuen, kontzertuak emateko behar ziren baldintzen inguruan eta ez zituela betetzen azaldu zigun. Gauza batzuk aldatu beharra zeuden eta dena herriko jendearen laguntzarekin egin genuen».

Gaztetxea ireki zutenetik ikastaroak, txapelketa ezberdinak, hitzaldiak, diapositiba emanaldiak, pelikulak, dantza erakustaldiak eta beste hainbat gauza egin dituzte, eta aste-buru honetan bigarren urteurrena ospatuko dute.

Atekabeltzen bigarren urteurren honetan, Xabier Zabalotz alkateak ere Gaztetxearen inguruan bere taldeak duen jarrera azaldu du. «Gure ustez Gaztetxe bat herri batean beharrezkoa da. Hauteskundeetan esan genuen bezala, Atekabeltz herri gunea izatearen aldekoak gara, bai gazteentzat, bai herri eragile guztientzat ere. Gure aldetik etxea mantentzen saiatuko gara, eta herri gunea bezala erabil dadila».

ARESO ▶

Areso 600 kilotakoan hirugarren gelditu da

ERREDAKZIOA

Aresok hirugarren postua lortu du Euskal Herriko Lur Gaineko Sokatira Txapelketan, 600 kilotako kategorian.

Mutrikun larunbatean jokatuak azken jardunaldia eta gero, osotara 11 puntu lortu ditu Aresok Goierri A eta Gaztedi Aren atzetik. Goierri A lehenengo gelditu da 17,5 punturekin eta Gaztedi A, bigarren, 15 punturekin. Aresoren atzetik, berriz, Mutriku, Goierri B eta Gaztedi B gelditu dira, lehenengo 10, 5 punturekin, bigarrena 6 punturekin eta azkenekoa, 3 punturekin.

Bestalde, igandean txapelketa honen barruan, 560 kilotako kategorian, lehenengo jardunaldia jokatu zuten, baina Aresok ez du kategoria honetan parte hartuko.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212

▶ **Anoeta-Alkiza-Hernalde.**

Medikua: 65 23 39

▶ **Asteasu.** Medikua: 692423

▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003

▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361

▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134

▶ **Ibarralde.** Osasun etxea: 672411

▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329

▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720

▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800

▶ **Orendain.** Medikua: 655595

▶ **Orexa.** Medikua: 682228

▶ **Tolosa.**

▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111

▶ San Esteban: 006800

▶ Gernikako arbola: 006900

▶ Amaroako dispen.: 672637

▶ Asunzion klinika 675799 -

67 53 90 (larrialdiak)

▶ DYA: 672536

▶ Gurutze Gorria: 674888

▶ Villabona. Anbulat.: 006970

▶ Zizurkil. Aizitondo zerb: 693930

Garraioak.

▶ Renfe: 902 24 02 02

▶ Donostiako autobusa: 361740

▶ Tolosaldea bus: 650621

▶ Leitzaran autob.: 948 221015

▶ Taxia: 670420

▶ Taxia (Leitza): 608 873016

Besterik.

▶ Ertzaintza: 538820

▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858

▶ Tolargi: 650016

▶ Iurrumendi egoitza: 670325

▶ Tolosa gasa: 675320



AGENDA ▶

DEIALDIAK

Tolosa. Ereite elkarte kulturantzak antolatuta, irteera egingo dute igande honetan, hilaren 22an, Nafarroako Ikaburu kobazuloetara. Izen-ematea ostirala baino lehen egin daiteke 678 638 394 telefono zenbakian. Irteera 10:30ean izango da Santa Klaratik. Buelta, berriz, 18:30a aldera egingo dute.

Tolosaldea. Tolosa, Berastegi, Elduain eta Berrobiko urteroko erromesaldia Arantzazura hilaren 31n izango da. Autobuserako eta bazkarirako txartelak salgai daude, Tolosako San Frantzisko komentuko porterian.

Villabona. Bihartik aurrera Garagardo Azoka Villabonan, Txermin auzoan. 21 garagardo mota, euskal eta Alemaniako musika.

18:00etatik 01:00etara irekita, ostiralean eta larunbatean 02:00etaraino.

Villabona. Hilaren 29an 10:30ean, jaietan, egingo den kroserako izen-ematea zabalik da Olaederra kiroldegian 10:00etatik 14:00etara edo egun berean Zumbeltz elkarteak, Benjaminetik helduetara.

Villabona. Euskal Jaia hilaren 28an; sagardo dastaketa, erromeria 18:00etan eta zikiro jatea 21:00etan, Zikiro jaterako sarrerak salgai daude 20 eurotan herriko hainbat tabernatan.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur

Irurtzun. Gastearena, M. Amaia kalea, 4. 112.
Tolosa. Tolosa, M.I. Kale Nagusia, 7. 943 670648.

IRRATIA

Txolarre irrata (107.5, 101.2 FM)

11:00-14:00. *Tolosaldeko ahotza* magazina: eguraldia Joxe Landarekin, Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza-ren errepaso, elkarrizketak, agenda, lehiaketa, disko eskainiak...

18:00-20:00. *Tolosaldeko ahotza* (errepikapena).

20:00-21:00. *Irauli uhinak.*

21:00-23:00etara. *Bide okerretik.*

▶ HITZAk ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



Oargi elkarteak bi irteera antolatu ditu datozen asteburuetan

TOLOSA ▶ Bi irteera antolatu ditu Oargi mendi elkarteak datozen egunetan. Hala, asteburu honetan, hilaren 20, 21 eta 22an Tenako bailara, Pallas (2.974 m) eta Pico Biscáu (2.64 m) mendiak bisitatu dituzte. Antolatzaileek jakitera eman dutenez, gainera, aukera izango da bi egunetan mendia edo Arrollen jaitsiera egiteko. Datozen asteburuko zubia aprobetxatuz, halaber, bigarren irteera egin-

go dute bost egunetako, hilaren 27, 28, 29, 30 eta 31n, hain zuzen ere. Picos de Europa joango dira irteera honetan (Asturias, Espainia) eta Torre de los Horcados Rojos (2.056 m), Urriello (2.516 m), Castil (2.442 m) eta Torre de la Pardina (2.596 m) mendiak igoko dituzte. Informazio gehiago 637 830380 telefono zenbakian eskura dezakete interesatuek. HITZA

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN

Ion Ander Peña Olazabala.
Zorionak etxekoan eta bereziki Ane eta Loinazen partetik.



URTE ASKOAN

Martxel eta Ane Intxausti.

10 eta 12 urte bete dituzte. Muxu asko etxekoan partetik.

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

▶ HITZAren egoitza
TOLOSAN

Araba etorbidea, 5 behea

▶ HITZAren egoitza
LEITZAN

Udaletxeko bulegoa

hitza agurren tartea

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...